

ZIZURKIL ▶

Emakumeen eskubideez erakusketa

Amnesty International erakundeak jarri du ▶ 4



Garagardo Festa seigarren urtez egingo da Tolosako Zerkausian

EGUNAK ▶ Bihartik igandera luzatuko da; Plaza Zarra eta Solana kalera ere zabalduko da

TALDEAK ▶ Ekitaldi ugari antolatu dituzte herriko kirol eta kultur taldeek gastuei aurre egiteko ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Mugikortasun Astea, gaurtik hasita 22 arte

Egunero ekitaldiak izango dira jendea sentsibilizatzeko ▶ 4

IDOIA IRAOLA ▶ TXINTXARRI TXIKI



OLAIA ESKITXABEL

«Maila hobetzen saiatu nahi dut Alegian»

Gaur hasiko ditu entseguak bere haur abesbatzak ▶ 5

LEITZA ▶

Bihar hasiko dira klaseak Amazabal institutuan

Ordutegi berria izanen dute ▶ 7



Hodei Truk abesbatzaren lehen diskoa kalean da

TOLOSA ▶ Hodei Truk gazte abesbatzak *Zenbat kantu...!* diskoa grabatu berri du Bergarako gazte abesbatzarekin batera, David Azurzaren zuzendaritzapean. Hogei abesti dira guztira eta Ana Iparragirre eta Iñigo Alberdi pianojoleen laguntza izan dute. Diskoaren azala zuzendariak berak egin du. Laster

Herbeheretara doaz, nazioarteko lehiaketa batera, eta horregatik entseatzin ari dira elkarrekin. Ikasturte hasieran gaudenez, Hodei Truk abesbatzak «guztientzat atek zabalik» dituela jakinarazi nahi du eta 7 eta 17 urte arteko gaztetxo guztiak animatu nahi ditu abestera. HITZA ▶ 3

MUSIKA ▶

Musika Eskolan solfeoko helduen taldea osatzeaz

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak solfeoko helduen taldea osatu nahi du. Interesa duenak Musika Eskolara azal dadila eskatu dute bertako arduradunek; 943 65 15 93 telefono zenbakira ere dei daiteke.

EUSKARA ▶

Matrikulazio epea zabalik Aitzol Udal Euskaltegian

Aitzol Udal Euskaltegian zabalik da 2004-2005 ikasturterako matrikulazio epea. Aurretik bertan aritzen ziren ikasleek zein berriek eman dezakete izena. Egutero, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara dago zabalik idazkaritza (Pablo Gorosabel 34 B-3. solairua). Zenbait taldetan ikasle kopurua mugatua denez, matrikula garaiz egitea komenigarria dela gogoratu dute euskaltegiko ordezkariak.

IKASTAROA ▶

Zeinuen hizkuntza ikasteko aukera

Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartek zeinuen hizkuntza ikastarora antolatatu du. Urriaren 4tik 2005eko ekainaren lehen astea bitarte irauten du ikastarok, eta Inmaculada ikastetxean eskainiko da, astearte eta ostegunetan; dena den, bi ordutegi daude aukeran: 16:45etik 18:45era, eta 19:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago jaso eta izena eman nahi duenak Inmaculada ikastetxera jo behar du (Kondeko aldapa, 5b. 943 67 36 29).

KULTUR ASTEA ▶

Umearen eguna, gaur, La Jarako Kultur Astea

La Jarako Kultur Astearen baitan, Umearen eguna ospatuko dute gaur. 18:00etan hasiko dira ekitaldiak: jolasak, marrazki eta ipuin lehiaketak, eta txokolatada izango dira. 19:00etan, berriz, *Zer dakizu Extremadurari buruz?* lehiaketa egingo dute.

GARAGARDO AZOKA ▶



Jendetza biltzen du urtero garagardo azokak; argazkian, iazko edizioko irudi bat. HITZA

Seigarren aldiz ere, garagardoa dastatuz

Bihar irekiko ditu ateak Tolosako Garagardo Festak, herriko kirol eta kultur taldeen gastuei aurre egiteko

MADDI SOROA

Bihar, hilak 16, irekiko dira Tolosako 6. edizioko Garagardo Festaren ateak, 18:00etatik 23:30ak arte. Azokaren gune nagusia Zerkausia izango da urtero legez, eta aurtengoan ere mahaia jarriko dituzte Plaza Zaharrea eta Solana kalean, antolatzaileen arabera, gutxienez lehengo urtean izan zen jende kopuru bera espero da. Guztira, mila lagunentzako eserlekuak egongo dira Zerkausian eta inguruan banaturik.

Garagardo azokaren antolatzaileak, hainbat kirol eta kultur taldeetakoak dira, hala nola, Tolosa CF Igeriketa taldea, Igarondo igeriketa, Hegoalde areto futbolak, Judo elkar-tea eta Igarondo Urpekoak. Talde hauen helburu nagusia, azoka honen bitartez lorturiko irabaziekin, urtean zehar dituzten gastuei aurre egitea da.

Aurtengo garagardo azokak, 27 garagardo mota ezberdinez dastatzeko aukera eskainiko du. Honako hauek izango dira azokan parte hartuko duten garagardo etxeak: Alai, Eki, Oarsoak, Heineken, eta Comercial Aldama. Etxe jakin hauetaz

gain, munduko zoko ezberdinetako garagardoa ere probatu daiteke seigarren Garagardo Festa honetan, besteak beste, garagardo txekiarra, australiarra, amerikarra, alemana, irlandarra, danimarkakoa, frantsesa, belgikarra, Inglaterrakoa, edota Ipar Euskal Herriko. Horien artean, mota ezberdinetako garagardoa topatu ahal izango dute garagardo zaaleek, horia, horia nahasia, errea, beltza... Aipaturiko garagardo guztiak, zerrenda batean irakurri ahal izango dira, garagardoaren izena, egilea eta zapoaren deskribapen labur batekin. Modu honetan, zein garagardo aukeratu erabakitzerakoan errazagoa suertatuko delakoan. Aipatu, alkohola gustuko ez dutenek, alkoholik gabeko garagardoa eta ura edan ahal izango dutela.

Garagardoa eskuratzeko, urteroko sistema bera mantenduko da aurtengoan ere. Zerkausiaren sarreran, postu bat egongo da, bertan tiketak erosi ahal izango direlarik, ondoren txarteltxoaren truke gustuko garagardoa lortzeko. Tiketez gain, kristalezko nahiz zeramikazko jarraek erosteko aukera izango da postuan bertan.

Gose denak izango du jateko aukera ere, besteak beste, garagardo azokan ohikoa bihurtu den ukondoa, Bratwust eta Frankfurt saltxitxak edota Ibarako piperrak dastatzeko aukera izango duelarik. Aurtengo ordea, berrikuntza bat eskainiko du seigarren garagardo azokak, izan ere hanburgesa alemaniarrak jateko aukera egongo baita ogitarrean. Postterako, gazta edota euskal pastela eskainiko zaie Zerkausira hurbiltzen direnek.

Urte osoko lana

Urtero legez, ehundaka lagun biltzen dira Tolosako Garagardo Festan. Lagungiroan bilduta, eta mihia garagardo ezberdinetan dastatzeko prest egonik, kutsu berezia hartzen dute Tolosako egun berezi hauek. Seigarren urtea du aurtengoa Tolosako garagardo azokak, eta antolatzaileetako batek, Oscar Gibelalde, adierazi digunez, eguraldi ona izango da aurtengo garagardo azokari eskatutako zaiona.

Ez da, ordea, egun bateko lana, izan ere, arestian aipaturiko herriko kirol taldeek, urte osoa pasatzen baitute, tolosa-

EGITARRAUA ▶

OSTEGUNA 16 (BIHAR)

18:00. VI. Garagardo Azokaren inaugurazioa.

OSTIRALA 17 (ETZI)

20:30. Tolosako Musika Bandaren kontzertua, azokan bertan.

LARUNBATA 18

16:30. Txirindulari proba. Alebinek, kadeteek eta infantilek har dezakete parte.

18:00. *Geriguay* pailazo taldearen saioa, Plaza berrian. Eremaldia doakoa izango da.

20:00. Vista Alegre txaranga giroa alaitzen ariko da, Zerkausian, 22:00ak arte.

IGANDEA 19

17:00. Haur jolasak, Santa Maria plazan.

17:00. Tolosako xake elkartearen erakusketa, Plaza Zaharrea.

ORDUTEGIA ▶

Bihar eta igandean.

18:00etatik 23:30era irekiko ditu ateak.

Ostiralean eta larunbatean.

18:00etatik 24:00etara egongo da zabalik.

rrek eta Tolosakoak ez direnak gogoko duten azoka prestatzen. Bilerak, hara eta hona ibili... lan handia urte osoan zehar banaturik, baina azken emaitza, antolatzaileak harro, jendetza gustura, eta beste urtebetetza, aurrera doa garagardo azoka.

Judo elkarteko ordezkariak adierazi duenez, gogotsu daude osteguna iritsi eta azokako ateak irekitzeko, urte osoan lanean aritu ondoren iritsi baita eginiko lan orduak islaturik ikusteko unea. Beraz, elkarlanak hutsik egiten ez badu, eta argi edota elektrizitateak beren lana betez gero, izango da azokaz gozatzeko arrazoirik.

Pronostikoei begira, Gibelalderen ustez, oso zaila da iazko garagardo azokak izan zuen jendetza kopurua gaintzea, izan ere, iazko jende kopuruan, azoka honekin espero daitekeen jende kopuruak tontorra ukitu baitzuen. Hala ere, aurtengoan, ezta gutxiagorik espero, eguraldi ona eginez gero, ez da zaila izango garagardo azokak arrakastaz ospatzea seigarren urtebetetzea.

FUTBOLA ▶

Arrisku uneak sortzeko gai bai; irabazteko ez

Tolosak ez zuen larunbatean zestoarren kontrako partidua irabazterik izan, baina maila ona erakutsita berdindu zuen



Maila onarekin hasi dute Tolosa CFkoek denboraldia; igandean Berazubini jokatuko dute. MADDI SOROA

ZESTOA ▶ 0

TOLOSA ▶ 0

Zestoa. Aranguren, Quindos, Ugarte, Etxeberria I, Altuna (Kortadi), Diaz, Etxeberria II, Ipintza (Arrue), Aldalur (Eizagirre), Uria, Gerenabarrena (Jagoba).
Tolosa. Mujika, Goikoetxeandia, Garmendia, Artola, Sagastibeltza, Ion Garmendia, Orue, Regillaga (Aranguren; 61 m.), Prados (Illunbe; 72 m.), Lasa (Aierbe; 80 m.), Blanco (Elola; 65 m.).
Arbitroa. Casanova.

Txartel horiak. Zestoakoei: Etxeberria I, Altunari, Diaz eta Etxeberria II. Tolosakoei: Garmendiari, Lasari eta Elolari.

SAILKAPENA ▶

Taldea	I	B	G	P
1. Hondarribia	1	1	0	4
2. Mondragon	1	1	0	4
3. Ordizia	1	1	0	4
4. Pasajes	1	1	0	4
5. Tolosa	1	1	0	4
6. Touring	1	0	1	3
7. Mutriku	1	0	1	3
8. UPV-EHU	1	0	1	3
9. Aloña Mendi	1	0	1	3
10. Arebabaleta	1	0	1	3
11. Beti Gazte	1	0	1	3
12. Trintzerpe	1	0	1	3
13. Orioko	1	0	1	3

IRATXE ETXEBESTE

Merezia zuten garaipena, baina ez zuten markagailua hutsetik mugituz irabazterik izan. Tolosa CFkoek indartsu irten zuten larunbatean Zestoako zelaira, eta arrisku uneak erruz sortzeko gai izan baziren ere, ez zuten baloia sare artean sartzen asmatu. Jokaldiak adinako gol aukerak izan zituzten Luluagaren eta Mendizabalen mutilek, baina erne zen zestoarren atezaina. Erneegi, tolosarren kalterako.

Tolosa CFko prentsa ardura-dun Jose Mari San Sebastianek dio hasieratik kontrolpean izan zutela norgehiagoka. Eta hala izan zen. Kanpotarrek aukera bakarra izan zuten gola egiteko, eta huts egin zuten. Tolosarrak aukerak ugariagoak izan zirela egia da, baina haiek ere ez zuten lana behar bezala bukatzen jakin. Lasak bitan egin zuen baloia sare artera bidaltzeko ahalegina, baina atezainak lehena, eta defentsak, buruz, bigarrena, kanpora bidali zituzten. Gauza bera gertatu zitzaion Aierberri eta Pradosi. Ondo hasitakoak ezin bukatu.

Zestoako zelaiaren egoera aintzat hartuta, «askoz gehiago egiterik ez» zegoela esan dute Tolosa CFkoek: «Arezkoa da, eta, gainera, oso txikia. Gure jokalariei asko kostatu zaie bertara egokitzea». Arazo hori areagotu egingo da neguan, eurria egiten duenean lokatz bilaka-

tuko delako zelai osoa: «Kanpotik datozen taldeei kostatu egingo zaie bertan irabaztea».

Kontuak kontu, maila ona erakutsi dute beste behin Tolosako jokalariek, eta Hondarribia, Mondragon, Ordizia eta Pasajesekin berdinduta, bosgarren lekuan dira sailkapen nagusian. Taldeko arduradunek esandakoaren arabera, partiduak jokatu ahal «sasoi hobean» izango dira Tolosakoak, eta taldeak indar hartuko du, hortaz. «Entrenatzaileek, behintzat, hori espero dute».

Hurrena, igandean

Sailkapen nagusian 14. postuan dagoen Zarautzen kontra jokatu du Tolosak hurrengo partidua; igandean, 17:00etan hasiko da Berazubini. San Sebastianek dio itxura batean ez duela partidua zaila ematen, baina «garaipenaren alde borrokatu egin beharko» direla. Izan ere, ezinbestekoa da, bere hitzetan, eteko partiduak irabaztea: «Kanpoan berdindu, eta etxean irabazten ez badugu ez goaz inora».

Tolosa CFko jokalariek gogotsu ikusten dituzte taldeko ordezkariak eta arduradunak, eta horrek mesede egiten dio taldeari. «Denboraldia hasi dugun bezala amaitzen badugu horrek esan nahiko du ikaragarritzko maila emango dugula partiduz partidu». Ea bada.

MUSIKA ▶



Tolosako Hodei Truk eta Bergarako Gabero gazte abesbatzetako kantariak, Tolosako Musika Eskolan, gorputz heziketa lantzen. HITZA

‘Zenbat kantu...!’, Hodei Truk-en lehen diskoa

Begarako Gabero gazte abesbatzarekin grabatu du, eta laster kalean izango da

LEIRE MONTES

Tolosako Hodei Truk eta Bergarako Gabero gazte abesbatzak elkarrekin lanean ari dira aspaldion. Eta lankidetzara horren fruitu iritsi da orain *Zenbat kantu...!*, tolosarren lehen diskoa.

Hogei lan jasotzen ditu bildumak, eta aurten interpretatutako obreen artean aukeratu dituzte. Ana Iparragirre pianojole billabonaterra izan dute laguntzaile abeslariak; Iñigo Alberdi pianojole bergararrak ere parte hartu du diskoan, Gabero abesbatzak kantatzen dituen obretan, hain zuzen ere. David Azuraren zuzendaritzapean aritu dira guztiak.

Diskoaren azalaren diseinua ere Azurzak berak egin du: «*Ur iluna* du izena marrazkiak, eta diskoan Bernardo Atxagak idatzitako *Tximeleta reggae* testua jasotzen duen kanta batean oinarrituta dago», azaldu du David Azurak Hodei Truk-eko zuzendaria. *Zenbat kantu...!* diskoa laster izango da kalean.

Asteburu honetan, gainera, bi abesbatzetako kideak elkarrekin entseatu dute, Tolosako Musika Eskolan. «Indarrez hasi gara entseatzeko, eta la-

runbatean egun trinkoa egin genuen. Bergarako Gabero gazte abesbatzakoak eta Hodei Truk-eko zaharrenak Tolosako Musika Eskolan bildu gara Holandako Veldhoven hirian izango dugun Nazioarteko Gazte Koruen lehiaketako obrak prestatzeko». Goizean Nagore Orbeltu irakaslearekin gorputz heziketa landu zuten abeslariak, eta arratsaldean David Azurzak eman zizkien eskolak.

Hodei Truk, atek zabalik

Ikasturte hasiera honetan, gainera, «guztiantzat atek zabalik» dituztela gogoratu dute Hodei Truk-ekoek. 7 eta 17 urte bitartekoek dei egin diete taldean parte hartzea anima daitezen. Astelehenean eta asteazkenean dituzte entseguak, Nafarroako etorbidean (6. atzea-1. solairua), 18:30etik 19:30era. Interesa duenak, beraz, egun eta ordu horietan bertara joatea besterik ez du.

Gainera, hilaren 20an, astelehenean, entsegu berezia egingo dute: «Entsegu irekia prestatu dugu egun horretarako, nahi duenak abesbatza batek nola funtzionatzen duen ikus dezan».

MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun eib: 672411
Ikaztegjeta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Ambulatorioa, larriald: 461111
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona. Anbulator.: 00 69 70

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant R. Zaballarreta 1
 (Tolosa) 943 67 38 49
 Gimeno. Elbarren 52 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
 villabona-
 aitzondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Tolosa. Pisua salgai Korreo
 kalean. Egongela, sukalea, bi
 logela eta komuna. Berrituta.
 Estreintzeko. 615 71 37 62.
LANA
Villabona. Neska behar da
 Villabonako tabernan lan egiteko
 19:00etatik 13:00etara.
 650 48 79 34.

ESTETIKARAKO

NESKA BAT BEHAR DA
 LEAPAINDEGI BATERAKO
 Autonomia
 edo kontratuarekin
 686 378 663

GUTUN@K ▶

Villabonako
jaiak

Uztailaren 30ean argitaratuta-
 ko Koldo Etxaberen artikuluari
 erantzuna:

Orohar esaten den guztiare-
 kin ados nago, jai herrikoiak
 ulertzeko modua asko aldatu
 da jarrerari dagokionez, aur-

tengo jaien kostua, parte har-
 tze eskasagoa. Nire ustez, hala
 ere, artikulo horretan isladat-
 zen den Villabonako jaietako
 errealitateko hainbat ikuspun-
 tu aztertu gabe uzten dira.

Artikuluari aipatzen diren
 traba guzti hauen gainetik,
 oraindik bagaude herriko tal-
 deak dohainik eta ilusioz herri-
 ko jaietan parte hartzen dugu-

nok. Zergatik ez dira aipatzen
 Eresargi eta Eresargi Txikiren
 kontzertuak, Oinkarik antolat-
 utako jokoak, futbito txapelket-
 ak, txirrindulari txikien prob-
 ak, txekor jatea, dantza ema-
 naldiak...?

Ezin da ukatu, orain dela
 urte batzuetako herri ekimena
 gutxitu egin dela, hemen eta
 leku guztietan ematen den ten-

dentzia da, eta gurea bezalako
 taldeek ere pairatzen dituzte
 ondorioak. Hala ere, urtero
 gure lanarekin saiatzen gara
 kutsu herrikoia mantentzen,
 tendentzia pasota horri aurre
 egiten eta gainera, dohainik.
 Aipamen labur bat sikiera me-
 rezi zuen!!

SOFIA QUILEZ (ERESARGI
 ABESBATAZAKO KIDEA) ▶ VILLABONA

ZIZURKIL ▶ INGURUMENA

Mugikortasun
Iraunkorraren
Astea herrian

Gaurtik hasita, aste osoan zehar,
 ekintza ugari izango dira Zizurkilen

GARAZI AZKUE

Mugikortasun Iraunkorraren
 Astea dator Zizurkileren. Gaur
 hasi eta datorren asteazkena
 bitarte, ekintza ugari izango
 dira herrian parte hartu ahal
 izateko.

Gaur, soinua eta trafikoaren
 neurketak egingo dituzte. Ingu-
 rumenarekin lotuta, Zizurkilgo
 Udalak, bidegorriaren aurre-
 proiektua azalduko du jendau-
 rrean bihar. Hala ere, irailaren
 21a bitarte ikusgai izango da
 aurreproiektua Kultur Etxean.

Ekintza hauek Zizurkilen

egingo badira ere, igandean,
 Tolosalde osoak parte hartuko
 duen ekintzarekin batuko da
 Zizurkil. Bailarako bizikleta
 martxa izango da eta zizurkil-
 darrek, herritik Tolosara egin
 beharko dute bizikletan. Baina
 egun horretarako prestatzeko,
 bizikleta txekoak egingo di-
 tuzte bezperan plazan.

Eta egun handia 22a izango
 da: Autorik Gabeko Eguna.
 Egun horretarako, herriko
 hainbat bide autoei itxita man-
 tenduko dira eta haurrentzat
 ginkana erraldoia antolatu
 dute.

EGITARAUA ▶

GAUR

▶ Soinua eta trafikoaren
 neurketak egingo dira.

BIHAR

19:00. Bidegorriaren
 aurreproiektuaren aurkezpena
 Atxulondo kultur etxean.

IRAILAK 17

19:00. Umeek egindako
 marrazkien erakusketa irekiko
 da Atxulondo kultur etxean.
 Eta, unibertsitateko joateko
 autoa elkarbanatzeko
 proposamenak aurkeztuko
 dira.

IRAILAK 18

11:00-14:00. Bizikleten

txekoak doan egingo dira Joxe
 Arregi plazan.

IRAILAK 19

10:00. Bailarako bizikleta
 martxa. Tolosara irteera.

IRAILAK 20

▶ Bide heziketa herriko
 ikastetxeetan.

IRAILAK 21

▶ Eskolara oinez. Herriko
 haurrak oinez joango dira
 eskolara.

IRAILAK 22

▶ Autorik gabeko eguna.
 Ginkana erraldoia antolatu
 da herriko haurrentzat.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Emakumeen eskubideen
inguruko erakusketa

Amnesty International erakundearen 20
 argazki inguru daude ikusgai udaletxean



Guztira 20 argazki inguru daude ikusgai. G. AZKUE



Mundu guztiko emakumeak ageri dira erakusketan. G. AZKUE

G. AZKUE

Asiloa eskatzen duten emaku-
 meak, talde politiko armatuek
 eragindako gehiegikeriak jas-
 an dituzten emakumeak,
 emakume ekintzaileak, sindi-
 kalistak, etnia gutxituetako
 emakumeak, emakumeak ga-
 tazketan... eta orohar, emaku-
 meak ageri dira Anoetan jarri
 berri duten erakusketan.

Mota eta egoera askotariko
 emakumeak agertzen dira

Amnesty International era-
 kundeak ateratako argazkie-
 tan. Sierra Leonan, Mexikon,
 Palestinan, Pakistanen, Ken-
 nian, Japonen, Estatu Batue-
 tan edota Guinea Ecuatoriale-
 an ateratako argazkiak dira.

Anoetako udaletxean dau-
 de ikusgai argazkiok. Astele-
 henetik ostiralera egongo da
 irekita erakusketa, 18:00eta-
 tik 21:00ak arte; irailaren 23a
 arte izango da nahi duenak
 argazkiak ikusteko aukera.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarri-Txikiko ikasturteko lehenengo entsegua, gaur

Urtean zeharreko dinamikari buruz hitz egingo dute, besteak beste

OLAIA ESKITXABEL

Gaur hasiko dira Txintxarri-Txiki abesbatzako gaztetxoak ahotsak berotzen; 18:00etan elkartuko dira Kultur Etxeko areto nagusian. Haur abesbatzak urtean zehar izango duen dinamikari buruz hitz egingo dute, besteak beste.

Txintxarri abesbatza zazpi urtetik hamalau urte bitarteko gaztetxo ez osatzen da eta Alegiako eta inguruko herrietako haurrak biltzen dira bertan; zentzu horretan, abesbatzak «funtzio soziala» betetzen duela, azaldu dute Txintxarri Kultur Elkarteak kideek.

Alegialdeko haurren ahots heziketan lan egiteko beharra zegoela eta sortu zen haur abesbatza. Hori da, hain zuzen ere, Txintxarri-Txiki abesbatzaren funtzioetako bat, formazioa eskaintzearena, alegia: «Haurrek ahotsa modu egokian erabiltzen ikasi behar dute».

Ahots gazteak

Emanaldi ugari eskaini ditu Txintxarri abesbatzak 1991an sortu zenez geroztik; kontzertu gehienak inguruan eman dituzten arren, (Alegia, Tolosa, Ordizia...) beste hainbat herri ere bisitatu dituzte: Leiza, Donostia, Errenteria...

Irteerak ere egin ohi izan dituzte; jaz, esaterako, Oartzungo aterpetxe batean kontzertazioa eta aisialdiari lotutako ekintzak egin zituzten.

Abesteko gogoia duten gaztetxoek gaur Kultur Etxera agertzeko gonbitea luzatu dute, bestalde, Kultur Elkarteak kideek.

IDOIA IRAOLA ▶ TXINTXARRI-TXIKI ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Kantuan ere orduan eta gazteago errazago barneratzen dira jakintzak»



O. ESKITXABEL

Idoia Iraola tolosarra da 2001az geroztik, Txintxarri-Txiki abesbatzako zuzendaria. Musika Hezkuntzan diplomatu, zuzendari izateko ikastaro ugari egin ditu. Mundu horretan, esperientzia zabaldua du tolosar gazteak.

Erraza al da haurren abesbatza zuzentzea? Zer da zailena eta zer errazena?

Gauza guztiak bezala bere lana suposatzen du, baina txiki-txikitatik egon naiz abesbatzen munduari lotuta eta ez zait hain zaila egiten. Zailena, agian, abestiak aukeratzea izaten da; errazena berriz, beraiekin moldatzea.

Zein estrategia erabiltzen dituzu haurren arreta erakartzeko?

Gaztetxoek gustuko abestiak

lortzen saiatzen naiz horrela erraz bereganatzen baita beraien arreta. Eskolak aktiboak izan daitezkeen eta ahal dudan denbora guztia aprobetxatzen saiatzen naiz. Hori guztia abiapuntutzat hartuta, jarritako helburuak lortzen saiatzen naiz.

Zer nolako izaten da haurren ahots heziketa?

Beraiek aurrean dutenaren ahotsa eredu gisara hartzen dutenez oso garrantzitsua da hezitzaileak ere ahots ona izatea; kantuan ere orduan eta gazteago, errazago barneratzen dira jakintzak.

Foniatren arabera, gero eta altuagoa da afoniak maiz izan dituzten eta ahotsa urrututa duten haurren kopurua. Zer duzu esateko?

Lehen etxean, kalean edota ikastolan abesteko ohitura goen. Egun, ohitura hori gutxitzen doa; haurrak gero eta gutxiago abestu eta gero eta zarrata gehiago egiten dute. Ahots arazoak gero eta haur gazteagoetan somatzen dira eta hori ahalik eta azkarren konpontzea garrantzitsua da.

Zenbat haur daude Txintxarri-Txikin?

Gutxi gora-behera hogeita bost haurrek osatzen dute abesbatza eta kopuru hori urtetik urtera gehitzen saiatzen gara. Inguruko herrietako haurrak abesbatzan parte hartzea nahiko genuke. Ez dut uste gogorra egiten denik abesbatzara etortzea; astean behin entseatzeko dugu eta entsaioetan ongi pasatzen da.

Zer dute gustukoak?

Egiten ditugun irteerak; abesbatzaren gain era guztiak jolasak egiten baititugu eta beste abesbatzetako jendea ezagutzeko aukera izaten dutelako.

Zein da zure helburua Txintxarri-Txiki abesbatza-rekin?

Alegian kantarako dagoen zailtasuna ikusita, abesbatzaren maila hobetzen saiatzea da helburua. Ikasturte honetan, bereziki, eta beti ere kantua helburutzat hartuta, elkarrekin ahal dugun ondoen igarotzeko proiektu berriak martxan jartzea da helburu nagusia. ◀

UGARTE ▶

Herri bilera deitu dute, gaurko, elkartean

Ugarteko elkartean bilera deitu dute gaurko; bertan, besteak beste, auzoak dituen beharrez, norberak dituen kezka edo proposamenez, Udalarin egin beharreko eskaeraz hitz egingo dute, besteak beste. Bilera, 20:30ean hasiko da elkartean. Ugarter guztiak bilerara gonbidatuta daudela azaldu dute antolatzaileek.

AMEZKETA ▶

Pasaiatik Donostiara oinez, igandean

Datorren igandean, irailaren 19an, Pasaiatik Donostiara oinez joateko proposamena luzatu du Buruntzun Mendi Elkartek: «Amezketar, inguruko edota ibiltzea maite duten guztiak» gonbidatuta daudela zehaztu. Ibilaldia hiru ordu ingurukoa da eta «edonork egiteko modukoa»; horretaz gain, «bidean zehar itsasaldeko paisaia ederrak ikusteko aukera» izango dela esan dute mendi elkarteko kideek. Interesatuztat hitzordua 08:00etan izango da Amezketako plazan; ondoren, Alegian tren hartuko dute.

IKAZTEGIETA ▶

'Helduak haurren zaindaria' hitzaldia datorren astean

Doako hitzaldi irekia eskainiko du datorren asteartean, irailaren 22an, Cristina Oterminek kiroldegian *Helduak haurren zaindaria* titulupean. Udalar Kutzaren laguntzarekin antolatutako hitzaldia da eta 16:30ean hasiko da.

iragarki laburrak ▶



Aia. Baseria salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Albiztur. Etxe rustikoa salgai, 3 solairukoa, solairu bakoitzak 120 m² ditu, eta 200 m²-ko lursailarekin.

Anoeta. Bi eta hiru logelako etxebizitza berriak.

Anoeta. Etxe abikia, garajea aukeran.

Belantza. 1.060 m²-ko pabiloia,

erabat garbia, argitsua eta garabi-arekin.

Donostia. Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m²-ko bulegoa salgai, banatzeko aukera.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza, Colon pasealekuan, bista zoragarriak dituena eta berritua.

Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baseria salgai; berrikuntza behar du.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza. Berritze. Kanpoaldera. Lehenengo pisua.

Ibarra. 75 m²-ko pabiloia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.

Irura. 52 m²-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan.

Irura. 60 m²-ko etxebizitza salgai; bi logela.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

Lasarte. Egoera bikinean dagoen 62 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia

salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Lizartza. Solairu bakoitzeko 130 m² dituen hiru solairuko baseri berritua salgai.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloia, eraikuntza berrikoa.

Segura. Erabat berritua dauden 60 eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.

Tolosa. Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldea, bainugelata eta trastelekuarekin.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ibarrako San Bartolome jaien inguruko balorazioa

Abuztuaren bukaeran, ohiturari jarraiki, San Bartolome jaiak ospatu ditugu Ibarren, eta aurtentzen, gainera, Xabi eta Ikerrri omenaldia eskaini diegu jai herriko ederrean murgildurik. Hori guztia balioesteko garaian udal taldekideok egun horie-

tan izan dugun jai giro jatorra eta parte-hartze handia nabarmendu nahi dugu.

Jakin badakigu banaka batzuk, zoritxarrez, errespetuan eta bakean oinarrituz elkar biiziten eta ongi pasatzen ez dakitela, eta jaiak gogokoan dituzten armekin zikindu nahi izan dizkigute: txikizioekin eta probokazioekin. Horren guztiaren aurrean ibartarren eta bisitatu gaituztenen erantzuna eredu garria izan da, giro on horren aldekoa eta azpimarratu nahiz zoriontzeko modukoa.

Udalaren izenean zorionak. Eta, diferentziak alde batera utzita, ezin publikoki zoriondu gabe utzi Jai Batzordea, horiek egin baitute posible guk guztiok jaiak gozatzeko aukera izatea, izan ere, Jai Batzordearen kideak denbora luzean aritzen dira lanean musutruk Ibarren alde.

Udal honen izenean eta ibartar guztienean mila esker eta zorionak. Jarrai izaten guztiotzako, orain arte bezala, gatza eta piperra.

IBARRAKO UDAL TALDEA

ELDUAIN ▶

Ohitura zaharrak eta berriak herri txikietako jaietan

Balorazio ona egin dute aurtengo Elduaingo jaien inguruan, herritarren parte-hartze handia azpimarratu dutelarik

IÑIGO TERRADILLOS

Uda amaitzearekin batera herriko festa gehienak amaitzera doazen seinale izan ohi da. Udako oporraldian festarik festa ibiltzeko parada eskaintzen dute, batean amaitu bestean hasi, non-nahi izaten dira herriko jaiak.

Elduainean, irailaren 3tik 8ra bitartean izaten dituzte herriko jaiak, lau egunetan zehar banatu zituztelarik ekitaldiak. Herri txikietan izan ohi direnak ez ziren falta aurtengoan ere. Baina herri kirolak, trikitixa eta

herri afariei bestelako berrikuntzak ere batu zitzaizkien.

Aurtengo egitarauan gazteen artean hain modan jarri den disko festa izan zen eta baita txiste kontalariak ere.

Ohitura zaharrekin jarraituz, baina gauza berriak ere sartu nahirik mantentzen dira herri txikietako jaiak. Gazteek festa hauek ahaztu eta herri edo hiri handietara joateko ohitura hartu duten bitartean, herri txikietan berritu beharrean aurkitzen dira jendea erakarri nahi badute.

Balorazio ona

Mari Jose Karrera Elduaingo kultura zinegotziak balorazio ona egin du aurtengo jaien inguruan. Orohar, jaiak oso ondo igaro direla dio, ekitaldi guztietan jendeak parte hartu

duelarik. Haurrentzat aktibitate asko zegoen eta nahiko jendetsuak izan ziren guztiak. «Egitaraua egiterako orduan, asko pentsatzen dugu haurrengan, denek ondo pasatzea bilatzen baita jaietan», dio kultura zinegotziak. Aurtengoan, bestalde, toka txapelketa berreskuratu dute eta berrogei bat lagunek eman zuten izena. «Ohitura zaharra da gure jaietan tokarena eta horrelako harrera ona izanak poz handia ematen digu», gehitzen du Mari Jose Karrerak.

Baina usadioak alde batera utziz, moda berriei ere lekua utzi diete, larunbatean izan zelarrik berrikuntza nagusia disko festa eta Iraola eta Pagadi txiste kontalarietan, jende asko gerturatu zelarrik. Orain, berriz, urte bete itxaron beharko dute berriro festaz gozatzeko.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Izaskungo lehendabiziko bazkaria joandakoak. J. URREBATZKAIA

Izaskun izena dutenen bazkaria igandean

Orain 6 urte hasitako ohiturari jarraituz, igande honetan bilduko dira Izaskunen

I. TERRADILLOS

Izaskun izena dutenek zita polita dute igande honetan Izaskunen, bertan bazkaria egingo baitute Izaskun jatetxean.

Izaskun Olariaga eta Izaskun Elola hasi ziren antolaketan lanetan duela sei urte. Arantzazu eta Arrate bezalako izenekin ere gauza bera egingen zela ikusita Izaskun izena daramaten emakumeak bildu nahi izan zituzten bazkari bat egiteko asmoz. Lehenengoan ehundik gora emakume bildu zen Izaskun izenarekin, gertukoak nahiz urrutikoak, hainbat herritatik etorri ziren.

Horrelako arrakasta lortu ondoren errepikatzea erabaki zuten, igandean, irailaren 19an, egingo dutenarekin seigarren bazkaria izango delarik.

Egun atsegina pasatzea dute helburu bertaratzen di-

renek; lehenik meza izango da Izaskungo ermitan 13:30an eta ondoren, berriz, bazkaria Izaskun jatetxean. Bazkariarekin amaitu ondoren, musika eta dantzaldia ere izango da gustuko duenak dantza saio bat egiteko aukera izango duelarik.

Jende berria ezagutu, lagunak egin eta azken finean ondo pasatu, hori nahi izaten dute egun horretan Izaskuna igotzen direnek. Adinean ere ez da izaten inolako baldintzarik, adin guztietako emakumeak elkartzen baitira bilera berezi honetan.

Igandea era desberdin batean pasa nahi izanez gero, bazkari honetarako izena ematea besterik ez dute egin behar izen hori daramaten emakumeek. Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu beharko da goizetan: 943 67 59 27.

GAZTELUKO UDALA

Gazteluko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala Osingoinen eta Erretore Etxean: Hasierako onarpenaren jendeareko erakusketa.

Gazteluko Udalak 2004ko uztailearen 24an egindako ohizkanpoko udalbatzarrean Raimundo Mendiburu Abad arkitektoak idatzitako Gazteluko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari Osingoinen eta Erretore Etxean hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Aipatutako espedienteak jendaurrean jartzen da iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (2004ko irailak 14) eta hilaletako epean, aztertu ahal izateko eta egoki diren erreklamazio eta alegazioak egiteko.

a) Dokumentua aztertzeke lekua: Gazteluko udaletxean, bulego orduetan (astelehena, asteazkena eta ostiralean, 9:00etatik 15:00ak bitartean).

Gaztelu, 2004ko irailaren 15a
Alkatea

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak,
argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Amazabal ikastetxean bihar hasiko dira eskolan ikasleak

Aurten, ordutegi berria izanen dute eta jangelako zerbitzua ere, beste egun bat gehiagoan izanen da zabalik



Zonaldeko 210 ikasle etorriko dira Amazabal BHIra aurten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar, osteguna, ekinen diete eskolei Amazabal Bigarren Hezkuntzako Ikastetxean, aurkezpen eguna izanen baita DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Ikastetxean bertatik adierazi dutenez, 2., 3. eta 4. DBHko ikasleek 10:00etan dute hitzordua egina eta gazteenek, hau da DBHko 1. go mailakoek, eta Batxilergokoek, beranduago, 11:00etan zehazki. «Gela berria, tutorearekin egoten dira. Ordutegia, beharrezko materiala zein den jakin, irakasle eta ikasgaien berri izan... Eta lehendabiziko mailakoek, lekua ezagutzen dute, gela bereziak non dauden... kokatu egiten dira», zioten. Beraz, biharko egunean, ikasturtea lasai hasiteko moduan dira bertako ikasleak, ezparririk gabe.

Ordutegi berria

Aresoko eta Leitzako ikasleek gain, Ezkurra, Goizueta, Arribe, Araitz eta Larraun baillaretako gazteak ere etorriko dira, orotara 210, Leitzako ikastetxe honetara, aurten berritu duten ordutegiarekin: goizez, egune-

ro, 8:30ean sartuko dira guztiak, baina eskolen bukaera ordua desberdina izanen dute; ostiralean 14:40ean aterako dira denak, baina gainerako egunetan, astelehenetik ostegunera alegia, DBHkoak 14:20ean eta Batxilergokoak, 15:10ean.

Ordutegiarekin lotuta, jangelako zerbitzua gehitu dute ere, horrela Batxilergoko ikasleak atera bitartean, gainerakoek bazkaldu egiten dute, eta gero, elkarrekin, autobusetan bakoitza bere herrira itzuli. Ostiralean ez da otordurik emanen. «Bazkaria bertan prestatutakoa da, bi sukaldari aritzen dira horretan, eta banaz beste,

55-60 ikasle gelditzen dira bertan. Oso ongi jaten da», erantsi zuten bertatik.

Amazabal ikastetxean, noski derrigorrezko bigarren hezkuntzan, 9 ikasleko, aurtun, dibertsifikazio gela ere izanen da. Bestalde, hiru batxilergo modu erakusten dira: osasun eta natur zientzietakoa, zientzia eta ingeniarietakoak, eta gizarte zientzietakoa.

Jakin izanenez, eskolaz kanpoko jardueren antolaketan ere parte hartzen omen du ikastetxeak, bertako Guraso Elkartearekin batera eta arratsaldeetarako ikastaroak antolatzen omen dituzte, «informatikakoak, aurtun brikolajekoa agian», ziotenez.

Zentro honetan hogeita hamar bat irakasle egiten dute lan «oraindik ere, baten batzu etortzekoak dira, izan ere atzo —astelehenaz— ari ziren bakankeak banatzen departamentuan eta interinokoen ez dira hasi... Ikasturtea hasita egonen da aixe, denak osatzerako», kexu ziren.

Kontuak kontu, bihar, neguko martxari ekinen diote, batzuk eskola berria eta besteak, beste ikasketa batzuetarako bidean, azken kurtsioan.

PELLO ZESTAU ▶ AMAZABAL BHI-KO ZUZENDARIA

«Ikasleak erraz egokitzen dira leku eta irakasle berrietara»

Ikasturtearen hasiera dela eta, Pello Zestauk zertan aritu diren adierazi dio HITZARI, klaustrotik atera eta berehalakoan.

Asmo berriren bat bada, ikasturterako?

Oraindik ez dugu deus ere erabaki. Aldiuneko deialdien arabera erabakiko da. Baina ohikoak diren proiektuekin jarraituko dugu: musikakoek antolatzen dituzten kontzertuekin; atzerrian ikasteko bekak ere bideratzen ditugu hemendik, iaz esate baterako 2-3 ikasle joan ziren Kanadara, Ingalaterrara... baina hori lortzeko eskakizunak ere oso bereziak dira nota aldetik eta...

Zer moduzko emaitzak lortu dira aurreko ikasturtean?

DBHn ere iraileko azterketak

ezarri zituzten iaz eta oraintsu bukatu dugu lan hori. Gutxi gora behera, urtero bezalatsukoak izan dira emaitzak, ez da halako alderik nabaritzen batetik bestera. Zerbait hobetzea bai, ikusi, egiten da.

Erakusteko materialarekin arazoren bat izan duzue?

Ez, gai bakoitzean irakasleek aukeratzen dute zer material erabili behar duten kurtsioan zehar. Hori bai, kurrikuluma ezarrita dago.

Bi eraikuntzak erabiliko dira?

Bai. Hau bera eta eskolako alde berria. Hautazkoak diren zenbait gaitan ikasleek mugitu beharko dute, honuntz.

Zertan aritu zarete orain arte?



JAIONE ASTIBIA

Errekonferentziak eta ebaluaketa saioak egiten, lehenengo. Eta ondoren, ikasturtea antolatzen: ordutegiak, taldeak...

Eskolatik honerako aldaketa nola egiten dute ikasleek?

Egokitzen dira, bai. Eskolakoekin biltzen gara aurrez, aldaketa ahal den samurren izan dadin: ordutegia aldatzen baita, goiza luzeago egiten da, irakasle guztiak berriak... Baina segituan ohitzen dira. ◀

OSASUNA ▶

Gripearen aurkako txertaldia abian

Leitzaldeko Osasun Zentroan, gripearen aurkako txertaketa kanpainari ekin diote jada eta horretarako egun batzuk aukeratu dituzte. Aresoko nahiz Leitzako herritarrek txertoa Leitzako osasun zentroan hartu nahi badute, gaurtik hasi eta hurrengo hilaren 15a bitartean egin dezakete. Edozein moduz, egin behar horretarako, Aresorako ere bi egun berezi dituzte, irailaren 23a eta urriaren 14a zehazki. Jakitera eman dutenez, beti ere aurrez 948 510 800 telefono zenbakira deitu behar omen da, 8:00etatik 10:00ak bitartean erizainarekin ordua hartzeko.

LEITZA ▶

Jaunarena eta Olanok irabazi zuten txapela

Igande honetan Alkizan, jaien barranean, XIV. Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren gaztetxoek maila guztietan. Eta alebinei zegokien azken partiduan, Julen Olanok eta Jon Jaunarena leitzarrek irabazi zuten txapela, 16 eta 9ko tanteez. Beraiek adierazi dutenez, hiru hilabetez aritu dira txapelketa hau jokatzeko «hasieran bakanago, baina final laurdenak, erdiak... hurbildu ahala, maiz asko joan gara Alkizara» eta azkenik, igandean, txapela eskuratu.

LEITZA ▶

Diego Rieño ETBko 'Basetxea' lehiaketan da

Diego Rieño leitzar gazteak astelehen gauean egin zuen bere lehen agerraldia ETBko Basetxea programan eta besteak beste, bertso kantari ekin ere, txanda honetan Karrantzan grabatuko duten egonaldiari. Inork irautekotan, 24 urteko mutil honek eginen duela, dio herriko jendeak «mendian eta errekan, janaria bilatuko du horrek, lasai», esanez.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 15a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Aingia, Aizko, Alzo, Ametzeta, Ancoeta, Balaran, Berasteg, Elouan, Hernialde, Ibarra, Irura, Larramendi, Leizor, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza. Kultura Saila

943 30 43 46

GAURKO EGURDIALDIA

goizez



arratsaldeaz



beroena

18

hotzera

15

BIHARKO EGURDIALDIA

goizez



arratsaldeaz



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezeta. Ugarteko elkartean bilera egingo dute ugartearrek 20:30ean.
Alegia. Igandeko babarrun-jaterako xartelak Kultur Etxean daude salgai.
Anoeta. Igandeko Errioko aldarrikapen egunerako izen-emateko azken eguna gaur Itzuli tabernan.
Belauntza. KZgunea 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 17:00etara egongo da irekita irailan. Gaur Outlook Express ikastaroa izango da 10:00etatik 12:00etara.

ERAKUSKETAK

Anoeta. Amnesty International erakundearen 20 argazki udaletxeko bideo gelan emakumeen eskubideez. 18:00etatik 21:00etara. Irailaren 23a bitarte.
Belauntza. Kanadako artikoan dauden Aurora Polarren espedizioa. Irailaren 20ra Kultur Etxean.
Hernialde. Leire Markinez. Ostatuan.
Tolosa. Tolosako ondare etnografikoa jasotzen duen *Zaharkinak* Ferialekuan.
Tolosa. Ricardoren zapatak. Oskarbi tabernan (lurre).
Tolosa. May Colmeneroren ikasleak. Aranburun.
Tolosa. Miren Gonzalez. Aranburu Jauregian.
Tolosa. Marisa Vivanco. Saikin tabernan.
Tolosa. Txaro Medrano. Sorron koadro dendan.

KULTUR ASTEA

Tolosa. Extremadurako Kultur Astea: haur jokoak, marrazkiak, idazlanak eta txokolatada 18:00etan eta *Zer dakizu Extremaduraz?* 19:30ean La Jara elkartean.



Etexko loreak islatu ditu Sanchezek erakusketa honetan. J.SAIZAR



Bodegoi hau ere ikus daiteke 18 akuarelez osatutako bilduman. J.SAIZAR

Loreak eta kolore beroak

TOLOSA ▶ Olivia Sanchez pintore ibartarrak aurtengo lanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan hilabete honetan

JOXEMI SAIZAR

Ibarratik Larraulera joan zen bizitzera Olivia Sanchez Lorenzo pintorea. Han bilatzen du margotzeko inspirazioa. Txikitan hasi zen zaletasun honekin, 7 urterekin. Tolosan Arteka denda duela 12 urte ireki zuen, bere zaletasunarekin erlazionatutako materiala saltzeko.

Inguruko herri askotan —Alkiza, Asteasu, Hernialde, Irura, Tolosa, Zizurkil— aritzen da besteei erakusten, udalek antolatutako ikastaroen bidez. Eta erakusketa ugari egin ditu hemen eta kanpoan: Beasainen, Donostian, Araban...

Herri asko ezagutzeko aukera eman dio pinturak margolari ibartarrari. Baita jende asko ezagutzeko ere.

Tolosara itzuliz, lehen ere bere arteaz gozatzeko aukera izan dugu Aranburu Jauregian eta hainbat tabernatan. Lanbroa tabernara itzuli da berriro, eta bertan egongo dira ikusgai aurten egindako 18 margolan hilabete osoan zehar.



Kolore beroak ditu gustuko artista ibartarrak. J.SAIZAR

«Akuarelak dira denak, gai desberdinak erabiliz: lorategian ditudan loreak, paisajeak, bodegoiak, abstraktoak... Kolore aldetik kolore beroak gustatzen zaizkit: gorriak, okreak... Niri gustatzen zaizkidan gauzak jarri ditut erakusketa honetan», adierazi dio Sanchezek HITZARI.

Tabernetan erakusten dituen koadroak azkenaldian gutxi saltzen direla erantsi du: «Erostekeo mentaliterik ez dago. Gehiago funtzionatzen dut enkarguen bidez». Hala ere jendearen begirada Sanchezen kolore beroetara joaten direla esan behar da, hala frogatu du behintzat HITZAK, tabernako bezeroen arreta lortzen du erakusketak, kafe edo zuri-toren bat hartzen duten bitartean.

Aurrerantzean ere izango da herriko eta kanpoko artisten obra grafikoa ikusteko aukera taberna honetan eta beste batzuetan, hilero erakusketa aldatzeko ohitura ona hartu baitute. Eskertzekoa da bere ahalgina.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aniceto Sarasola. Gaur 80 urte. Zorionak etbekoen eta Miguelen partetik.



URTE ASKOAN
Julen Bengoa (Tolosa). Gaur 4 urte. Aita, ama eta Manexen partetik.

HITZA, zorion agurren
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea
 ezkontzak, jaioberriak...
 zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!